



Bertaratutakoak:

Laura Sanzol Olleta and.

Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen
ordezkaria FSIE-SEPNA

Aurora Bernal Martínez de Soria and.

Unibertsitateen ordezkarria. Universidad
de Navarra/Nafarroako Unibertsitatea

Pedro María Baile Torrea jn.

Ikasleen Gurasoen Elkartearen ordezkarria

Iosu Mena Sarasola jn.

Ikastetxe publikoetako zuzendarien
ordezkaria

Ander Domblás García jn.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkarria

Josu Repáraz Leiza jn.

Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate
titularren ordezkarria- Nafarroako
Ikastolen Elkarte

M^a José Anaut Couso and.

Sindikatuaren ordezkarria/UGT

José Jorge Lanchas Rivero jn.

Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate
titularren ordezkarria/ANEG-FERE

Mikel Rodríguez Aguirreche jn.

Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien
ordezkaria

Nekane Oroz Bretón and.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkarria

Cristina Bayona Sáez and.

Unibertsitateen ordezkarria UPNA

Arantxa Ruiz Vidorreta and.

Ikastetxe Publikoetako Irakasleen
ordezkaria. STEE-EILAS

Ignacio M^a Iraizoz Zubeldía jn.

Nafarroako Ikastetxe pribatuetako
entitate titularren ordezkarria/ANEG-FERE

Ignacio Toni Echeverría jn.

Nafarroan desgaitasuna duten Pertsonen
ordezkaria/ CORMIN

Nora Salboltx Alegría and.

/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen
ordezkaria LAB

Roberto Pérez Elorza jn.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkarria

Lourdes Larunbe Arretxe and.

Ikastetxeetako Administrazioko eta
Zerbitzuetako langileen ordezkarria

Karmele Marañon Chasco and.

Toki entitateen ordezkarria

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 30eko
17:08ak direlarik, Eskola Kontseiluko
egoitzan (Kale Nagusia, 65 – Ezpeleta
jauregia) Nafarroako Eskola Kontseilua
edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko
Osoko bilkura biltzen da, Aitor Etxarte
Berezibar jaunaren lehendakaritzapean,
ondoan agertzen diren kideen
presentziarekin, eta Antonio Iriarte
Moncayola jauna idazkari bezala. Gai-
zerrenda hurrengoa da:

1. Aurreko bileraren akta berraztertu eta,
hala behar bada, onestea.
2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.
3. Estatuko Eskola Kontseiluari buruzko
informazioa.
4. Nafarroako Berdintasunerako
Kontseiluan ordezkaritza-
proposamena.
5. Nafarroako Hezkuntza Sistemaren
Txostena berrikusteko eta hobetzeko
txostena.
6. IkasNOVA Proiektuaren aurkezpena.
7. Galde-eskeak.



Ainara González Rubio and.

Berdintasunaren alde lan egiten duten
elkarteen ordezkaria

Andoni Albeniz Bratos jn.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Juan Luis García Martín jn.

Ikasleen Gurasoen Elkarten
Federazioen ordezkaria

Aitor Lacasta Zubero jn.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Eduardo Mayor García jn.

Ikasleen Gurasoen Elkarten
Federazioen ordezkaria

Carmela Muñoz Ventura and.

Ikastetxe Pribatuetako Ikarasleen
ordezkaria FETE-UGT

Bertaratzea desenkusutzen dute:

Alfredo Hoyuelos Planillo jn.

Aitortutako ospea duen
pertsonek

Javier Albizu Sanz jn.

Toki entitateen ordezkaria

Benoit Julien Charles Rosso jn.

Enpresari elkarten
ordezkaria CONCAPA

Ez dira bertaratu:

Sergio Iribarren Galbete jn.

Ikasleen Gurasoen Elkarten
Federazioen ordezkaria SORTZEN

Santiago Álvarez Folgueras jn.

Ikasleen Gurasoen Elkarten
Federazioen ordezkaria HERRIKOA

Miren Aranoa Astigarraga and.

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria
(EH BILDU)

M^a Soledad Garjón López and.

Ikastetxe Publikoetako Irakasleen
ordezkaria AFAPNA

M^a Luisa de Simón Caballero and.

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria
(I-E)



Kontseiluburuak hitza hartzen du eta bertaratzea desenkusatu duten ordezkariari buruz informatzen du. Gai-zerrendaren 6. puntuari buruz egiten dela azpimarratzen du eta Nekane Orozi ematen dio hitza, honek, IkasNOVA programaren aurkezpena atzeratzea eskatzen du, programaren garapen osoago bat egiteko asmoz.

Bertaratutako ordezkarien aho batez onartzen da.

1. Aurreko bileraren akta berraztertu eta, hala behar bada, onestea.

Aurreko saioaren aktari buruz norbaitek zeozer esateko edo objektatzeko daukan galdetu du lehendakariak.

Bertaratutakoen baiespenez onesten da.

2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.

Lehendakariak, hurrengo puntuak azpimarratzen ditu:

- Iparralde DBHiren inaugurazio-ekitaldira bertaratzea, 2018ko abenduaren 20an.
- Estatuko Eskola Kontseilura bertaratzea, urtarrilaren 8an, 9an eta 10ean.
- “Buenas prácticas” Jardunaldira bertaratzea, Tuteran, 2019ko urtarrilaren 23an.
- IDEA aldizkariaren 50. alea, Nafarroako Eskola Kontseiluaren XXII. Jardunaldiei buruz, 2018ko abenduaren 21ean argitaratu eta webgunean kargatu zen. Halaber, XXII. Jardunaldien Monografiaren aurkezpena, 2019ko otsailaren 4an egitea espero da.
- Nafarroako Eskola Kontseiluaren XXIII. Jardunaldiak martxoaren 11n, 12an eta 13an egingo dira, Iruñean, “Eskola eta amarauna” lelopean. Presidenteak, egun bakoitzaren edukien eta parte hartuko duten pertsonen azalpen labur bat egiten du.



- Lehendakariak, batzordekideei informatzen die, 2018ko abenduaren 19ko Osoko Bilkuran onetsi ziren bigarren sehileko kontuetan, 3.510 euroko kontu-idatzohar bat gehitu behar dela, Nafarroako Gobernuaren Ogasun Departamentuarekiko eratorritako erregularizazio batzuen ondorioz.
- 2019ko urtarrilaren 11n, Nafarroako Eskola Kontseiluan, Nafarroako hezkuntza-sistemaren erdiko eta goiko Lanbide Heziketaren ikasleen ebaluaketa, titulu eta akreditazio akademikoa arautzen duen Foru Aginduaren proiektua jaso da.
- Kontseiluburuak dio, hurrengo Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzar Iraunkorren bilerak, 2019ko otsailaren 13an eta martxoaren 20an egingen direla. Halaber, azpimarratzen du, hurrengo Osoko Bilkura 2019ko otsailaren 27an izango dela.

3. Estatuko Eskola Kontseiluari buruzko informazioa.

Lehendakariak informatzen du, Erkidegoen Parte-hartze Batzordea urtarrilaren 9an bildu dela eta Hezkuntza Lege berriaren Aurreproiektuari buruzko egin den txostena onetsi dela. Halaber, dio, Estatuko Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurak, bere Hezkuntza Lege berriaren Aurreproiektuari buruzko txostena onetsi duela, zeini 551 zuzenketa aurkeztu eta 120 onetsi baitzaizkio.

4. Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluan ordezkaritza-proposamena.

Lehendakariak hitza hartzen du, azpimarratzeko, Nafarroako Eskola Kontseiluan irakasleak, ikasleak eta familiak ordezkatzeko dituzten kideekiko bilera, urtarrilaren 10ean egin zela. Onetsi da ere, urte bateko ordezkaritza birakari bat Osoko Bilkurari proposatzea, hurrengo izendapen-ordenarekin: lehen, AFAPNA eta CONCAPA, bigarren lekuan, STEILAS eta HERRIKOA eta, azkenik, SEPNA eta SORTZEN.



Urtarrilaren 13ko Batzorde Iraunkorren beste irtenbide batzuk proposatu ziren, izendatzeko ordenean, irizpide alfabetikoa erabili zen eta proportzio-ordezkaritzaren irizpide bat erabiltzea proposatu zen, beraz, Presidenteak batzordekideen iritzia eskatzen du.

Nora Salbotxek hitza hartzen du, bere Sindikatuaren iritzia kontsultatu egin duela esateko, eta izendapenetik kanpo geratzearekin ez daudela ados kontsideratzen dutela. Hala ere, alfabetiko-ordenean izendatzea errefusatzeko dute eta proportzionaltasunaren indizez izendatzea askoz zuzenagoa dela.

Lourdes Larunbek bere oposizio adierazten du Nafarroako Eskola Kontseiluko ez irakasleak diren ordezkariak, Nafarroako Berdintasunerako Kontseilutik kanpo uztearekin.

Arantxa Ruizek, bere ezuste atsegina adierazten du, Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluaren batzordekidetzan parte hartzeko erakunde desberdinen borondateagatik. Halaber, harritzen da CONCAPAren izendapen-proposamenagatik, zeinek SKOLAE heziketa-programaren kontra aditzera eman baitu; baita AFAPNA sindikatua izendatzeagatik ere, eta askoz gehiago biak lehen lekuan egoteko proposatzeagatik. Beraz, alfabetiko-ordenean izendapenaren aldatzea eskatzen du eta berdintasunaren aldeko erakunde bakoitzaren lan eta ekintza kopuruaren irizpidea erabiltzea.

Pedro Bailek hartzen du hitza, esateko SKOLAE programaren kontrako helegite bat aurkezteak ez dakar berak ordezkatzeko duen erakundea izendapen-prozesutik kanpo geratzea. Dena den, ez dio aurre egiten izendapen-ordenaren irizpidea aldatzeari.

Juan Luis Garcíak dio, ez duela eragozpenik aurkitzen edozein izendapen prozesu-mota erabiltzeko.



Laura Sanzolek manifestatzen du ez duela oztoporik ikusten edozein sistema erabiltzeko.

Karmele Marañoñek, proposatzen du ordezkaritza handiena duten sindikatua eta Gurasoen Federazioa izendatzea soilik.

María José Anautek adierazten du, bere sindikatuak izendapenaren parte-hartzea onartuko lukela, dena dela, Nora Salbotxen irizpidea laguntzen du.

Iosu Menak dio, Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluan Nafarroako Eskola Kontseiluko ordezkari bat izendapena ez dela mugatu behar familien, ikasleen eta irakasleen ordezkariengan.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Idazkariak dio, aipatu muga Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluaren arautegiaren barruan dagoela.

Ignacio Iraizozek hartzen du hitza esateko, bere ustez, izandapen hau bideraezina dela eta proposatzen du Nafarroako Eskola Lehendakaria izendatzea.

Idazkariak oroitarazten du izendapenak Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluaren araudian jarritakoarekin bat etorri behar duela.

Aurora Bernalek dio, gaia ez dela nor izendatu, baizik eta Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluan garatu behar diren lanak.

Kontseiluburuak hartzen du hitza eta bi proposamen egiten dizkio Osoko Bilkurari: lehena, Karmele Marañoñek esan duen bezala, STEILAS eta HERRIKOA



izendatzea, titularra eta ordezkaria hurrenez hurren eta, bigarrena, izendatzeko sektoreen ordezkariak berriro bildu adostasuna lortzeko.

Pedro Bailek eskatzen du hirugarren proposamen bat bozkatzeko, ordezkaritza birakaria mantentzea.

Lehen proposamenaren bozketari ekiten zaio eta uko eginda geratzen da hurrengo emaitzarekin: 8 boto alde, 9 aurka eta 5 abstentzio.

Bigarren proposamenaren bozketari ekiten zaio eta onesten da hurrengo emaitzarekin: 19 boto alde, 1 aurka eta abstentzio 1.

Pedro Bailek hirugarren proposamena kentzen du.

5. Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostena berrikusteko eta hobetzeko txostena.

Lehendakariak informatzen du, urtarrilaren 22an Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostena Parlamentuan aurkeztu dela eta Txostena berrikusteko eta hobetzeko Batzordea abiaraziko dela hurrengo Txostena egiteko.

6. Galde-eskeak.

Lehendakariak, Nafarroako Eskola Kontseiluaren ordezkari berria aurkezten du, Andoni Albeniz Bratos, Hezkuntza Administrazioaren izenean.

Ez da galde-eske gehiagorik.

Eta lantzeko gai gehiago egon gabe, lehendakariak Osoko Bilkuraren bileran bertaratutako kideen parte-hartzea eskertu du, 18:41etan saioari amaiera emanez.